



## TITULARTASUN PRIBATUKO IKASTETXEETAN, EAE-KO BATEZBESTEKOA EUROPAKOA BAINO BAJUAGOA PISA TXOSTENEAN

PISA 2012 txostenaren emaitzak argitaratu eta gero, medioetako tituluek eta Eusko Jaurlaritzak berak baieztatzen dute EAEko Hezkuntza Sistemak EB eta OCDEko batezbestekoak baino emaitza hobek lortzen dituela, baita publikoaren batezbestekoak EBekoa baino baxuagoa dela ere. Bi datu hauetatik, logikaz ondorioztatuko genuke EAEko sare pribatuak EBeko ikastetxe pribatuek baino askoz emaitza hobek lortzen dituela. Hala ere, kontrakoa gertatzen da: sare pribatuan ere emaitza baxuagoak dauka EAEk.

Itxurazko paradoxa hau ulertzeko, bi puntu kontuan izan behar dira.

Lehenengoa hezkuntza sistema guztietan gertatzen da: titulartasun pribatuko sareek ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala) altuena duten ikasleak jasotzen dituzte eta, orain arte, ISEK da emaitza akademikoak gehien baldintzatzen dituen faktorea.

Bigarrena, sare pribatuak EAEn duen izugarriko pisua da, ikasleen %50 eskolatzen dituelako, Europako batezbestekoa (%10) baino bost aldiz gehiago.

Hau da, titulartasun pribatuko ikastetxeek (ituntze indize handiago edo txikiagoekin, kudeatze era desberdinekin, idearioekin edo ideario barik...) abiapuntu hobea dutenak jasotzen dituzte; beraz, logikoa da sare horrek, biztanleen %50 eskolatzen duenez, bakarrik elitearen %10 eskolatzen dutenek baino emaitza txarragoak lortzea. Sare publikoan aurrekoaren eragin simetrikoa dugu: ISEK baxueneko ikasleak izateaz, zenbat eta ikasle gutxiago jaso, orduan eta emaitzen batezbesteko baxuagoa izango du.

Batzuek sare pribatuari finantziario handiagoa ematea proposatzen dute honako helburuak aitzakia jarrita: sare horretan maila guztietako ikasleak sartzea erraztu, familiek ordaintzen dituzten kuotak desagerrarazi eta ikastetxea aukeratzeko askatasuna bermatu. LOMCE bide horretatik doa, eta hemen nahiko ibilita dugu dagoeneko: eusko jaurlaritzako hezkuntza saila kudeatu duten guztiek, erakunde politiko ezberdinetakoak izan badira ere, gela berriak irekitzeko askatasun osoa, baimena eta ituna bermatu diete ikastetxeen titularrei, orokorrean itun guztiak berzizatu dira era automatikokoan, derrigorrekoak ez diren irakaskuntza mailentzako dirulaguntzak eman dituzte. Hala ere, sare pribatuak sektore gutxietsienak bazterten jarraitzen du, nahiz eta, sarea hedatzean, sektore anitzagoak barneratzen dituen.

Ez da bidezkoa diru publikoaz mantentzen diren ikastetxeek ikasleak onartzeko galbahe erabiltzea, ezta sare publikoak nahi duten guztiei plaza bat ez eskaintzea; gertakizun biak elkarri lotuta daude. Plaza publikoen gabeziak, ikastetxe batzuen getizazioak, zonifikazioak eta matrikulatzeko baremoek milaka ikasle daramatzate sare pribatura, horietako askok publikoa aukeratu luketen arren ahal izanez gero. Gogora dezagun ikastetxe pribatuetan partehartze demokratikoa titularrak baldintzatu ahal duela, hainbatetan derrigorrekoak ez diren jardueretara ikasleak joatera behartzen saiatzen direla, erlijio eskoletara kasu, edo zuzenean ilegalak diren neurriak inposatzen dituztela, kuotak ordaintzea bezala.

Inoiz ez dugu pentsatu hezkuntzarako eskubideak dakarrenik ikastetxea hautatzeko eskubidea; are gutxiago gela norekin ez den partekatu nahi erabakitzeo aukera, horretarako ordaintzeko prest egonda ere. Edozein kasutan, sare kontzertatua gainfinantziatzeak ez die aukeratzeko ahalmena handitu familiei orain arte. Ikusi dugunez, sare horren gehiegizko zabalkuntza baino ez du ekarri.

Ikastetxe pribatuen finantziarioa handitzearen aldeko beste argudio bat da ikasleko gastua publikoan baino txikiagoa omen dela; Euskadiko Eskola Kontseiluaren 2010-2012ko txostenak egiaztatzen du diru gutxiago inbertitzen dela sare pribatuko plaza bakoitzean.

Baina oso zaila da sare pribatuko plazen benetako kostua jakitea, diru publikoaz aparte beste finantziario iturri pribatuak jasotzen dituztelako (familien kuotak, instalazioen alokairua, beste enpresa-ekimeneen etekinak, diru-bilketa erraldoiak...) plaza horiek ordaintzen laguntzeko.

Dena den, Eskola Kontseiluaren txosten berak erakusten ditu sare publikoko plazak garestiagoak izatea azalduko luketen arrazoi batzuk: lan baldintza hobek (orain atzerakadan), eta biztanle gutxi dituzten zonaldeei eta gizarte eta hezkuntza behar berezietan ematen zaizen arreta.

Lan baldintzen hondatzea gastuak merkatzeko faktore objektiboa da eta sare pribatua zenbat eta handiagoa izan orduan eta eraginkorragoa litzateke; zer esanik ez, argudio hau defenda ezina delakoan gaude; gure lanetarikoa bat da gauzazina bihurtzea. Puntu hau alde batera utzita, gainontzeko aldagaiak ezin dira aztertu irakaskuntza sare biak errealtate independenteak bailiran. Hezkuntza ez da erostea edo ez erabaki ahal den merkantzia, botere publikoek biztanle guztiei bermatzeko beharra duten eskubidea baizik; sare publikoan zenbat eta ikasle gutxiago eskolaratu, hainbat eta sakabanatuagoak egongo dira, premia berezien protzentaje handiagoa izango dute, eta altuagoa gertatuko da kostea plazako (eraikin osoak ikasle gutxiengat, garraiatzeko beharra...)

Laburbilduz, sare pribatua dirudi bezain merkea ez dela eta bere presentziak sare publikoaren gastua garestitzen duela esan dezakegu. Sare pribatua gainfinantziatzea irtenbiderik gabeko kale itsu batera doan ikertutako bidea da.

PISAra itzuliz, azpimarratuko dugu EAEko emaitzen batezbestekoa ona dela eta eskola porrota eta uzte goiztiarraren tasa baxua dela –nahiz eta tasa ideala 0 izan–; bi aspektu hauek sare publikoarekin lotu ahal dira, jasotzen dituen ikasleen artean sisteman porrot egiteko aukera altuen dituzten sektoreak baitaude.

Beste aldetik, gogoratu behar dugu batezbesteko estatistikoekin ari garela, hau da, ikasle zehatz batek ez ditu bere emaitzak derrigorrean hobetzen edo kaskartzeko hezkuntza sareaz aldatzeagatik, 10 bat 0 baten ondoan 5 bihurtzen ez den moduan. Hau da, erlatibizatu behar ditugu ikastetxe batzuek sortzen dituzten itxaropen handiak ikasle hobereenak aukeratzeko dituztelako eta leundu behako genuke gure mesfidantza emaitza txarrak dituzten ikastetxeengan biztanleria kaltebera bakarrik jasotzen badute.

Inolaz ere ez dugu gutxietsi nahi eskolatze prozesuaren garrantzia; emaitza akademikoak lortzeko ISEK oso faktore eraginkorra da, baina ez bakarria. Ikasleak bereizteak ezaugarri ekonomikoaren eta soziokulturalaren arabera oso erraz sortzen ditu itxaropen akademiko baxuko taldeak eta beste guneak non ezintasunen eta aniztasun kulturalaren gabezia absolutuak bermatzen duen erabateko... ezjakintasuna. Sare publikoaren aldeko apustua egiteko ordua da.

Hezkuntza Sailak orain iragarri du plan berri bat, Hamaika Esku, emaitzak hobetzeko. Ondo deritzogu gehien behar dutenekin ahalegin bereziak egiteari. Hobe ikusiko genuke zentro horiek existitzeko zergatiak moztuko balira, eta ez dugu bakarrik hitz egiten pobrezia eta bazterkeria murrizteari buruz: ekidin behar dugu ikastetxe publikoaren ikasleek dauden inguruetakoak baino ezaugarri sozio-ekonomiko askoz baxuagoak edukitzea, edo etorkinen portzentaia %20ra heltzen ez den zonaldeetan sare publikoan ikasle %70 etorkina izatea.

Bere aldetik, hizkuntza ereduaren sistema nabarmenki bereizlea izan da, ikasle guztiak euskalduntzeko eraginik gabekoa izateaz gain. Eskola plangintza hobetzeaz eta hezkuntza eta hizkuntza politikaren puntu garrantzitsuak aldatzeaz ari gara; sailaren planteamendua sistema berak sortzen duen arazo bati partxeak ipintzea da.

STEE-EILAS

